ELKAR-EKIN 2022-2026 GIPUZKOAKO GIZARTE INKLUSIOKO II PLANA

Bertsio laburtua
2022ko uztaila

Elkar-EKIN Gizarte
Inklusioko II Plana

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

[00.]
Aurkezpena

2016an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Departamentuak 2016-2020 Elkar-EKIN Gizarte Inklusioko Plana jarri zuen abian, gizarte erakundeekin, udalekin eta beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan, Gizarte Inklusioko Plan bat gidatzeko erronkari erantzuteko, gizarte bazterkeriaren inguruko politika sektorialak antolatzeko eta gizarte inklusioaren helburuari modu eraginkor eta efiziente batean heltzeko, estrategia berriak bultzatzeko asmoz.

Era berean, garrantzitsua da Elkar-EKIN Lanean estrategia abian jarri zela aipatzea, enplegagarritasun arazo handienak dituzten pertsonentzako enplegu aukerak sortzeko. Elkar-EKIN Lanean mugarri estrategiko bat izan da lurraldean.

Aurkezten den plana gizarte bazterketako egoeretara bideratuta dago, baina, aldi berean, erakundeartekoa eta dimentsio anitzekoa da, eta Gipuzkoan gizarte bazterketaren eremuan lan egiten duten erakunde publiko guztiak lotzen ditu.

Horrela, plan bat aurkeztu da zeina, lehenengo planak inplikatutako eragile guztien baterako lan koordinatuan duen garrantzia mantenduz, funtsezko lau printzipiotan oinarritzen baita: jardueren fokalizazioa, zerbitzuen pertsonalizazioa, profil artatuen eta premia estalien estratifikazioa, eta eragile guztien koordinazioa.

Bigarren plan honek, lehenengoari dagokionez, zenbait berrikuntza dakartza bere egituraketari eta irismenari dagokienez:

- Gipuzkoako erakunde publiko eta entitate sozial eta pribatu askoren aliantza eta atxikimendua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoaren inguruan antolatuta.

- Planean eguneroko bizitzaren alderdi jakin batzuk kontuan hartzea –etxebizitza, osasuna, prestakuntza, diru-sarreren bermea eta abar–, funtsezkoak baitira integrazioko eta gizarte bazterketako prozesuetan. Aurreko planean zeharka soilik lantzen ziren. Aurreko planaren ebaluazio prozesuan agerian geratu zen eremu horretako arazo nagusiak egiturazkoak direla, eta gizarte zerbitzuen eta gainerako ongizate zerbitzuen arteko koordinazioari dagozkiola, horiek baitira enpleguko, etxebizitzako, hezkuntzako, osasuneko edo diru-sarrerak bermatzeko politiken arduradunak.

Eta bi mailatan egituratzen da:

1. Alde batetik, **marko estrategiko** bat, honako hauek biltzen dituena: Planaren oinarrizko ezaugarriak, planaren oinarri den arreta eredu bat, plana egiteko hartutako irizpideak, oinarrizko helburuak eta Planera atxiki diren erakundeek beren gain hartzen dituzten gomendioak edo orientabideak. Jarraian azalduko dugun moduan, marko estrategiko honek bost urteko indarraldia du, eta haren ezarpenean parte hartzen duten erakunde publiko eta sozialen jarduna epe ertain eta luzera bideratu nahi du.

2. Bestalde, **jarduera plan** espezifikoak, planari lotutako erakundeek aldi bakoitzean bere gain hartzen dituzten konpromiso eta proiektu traktore zehatzak bilduko dituztenak.

[01.]
Arau markoa eta marko estrategikoa

Gizarte Inklusioko Gipuzkoa Elkar-EKIN II Planak kontuan hartzen ditu azken urteotan gizarte bazterketaren aurkako euskal politiken artikulazioan gertatu diren aldaketak, bai eta hainbat eremutan garatu diren plangintza tresnak ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gobernantza eredu berri bat jarri du abian Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan, eta inplementazio prozesuko ikaskuntza garrantzitsuenen artean dago lidergo partekatu bat eraikitzea eta entzuteko prozesuak sortzea legitimazio iturri gisa. Era berean, Foru Aldundiak 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoa dauka. Plan horren abiapuntua honako hau da: «Europako desberdintasun maila txikienak dituzten pertsonen komunitatea izan nahi du Gipuzkoak».

Halaber, nazioartean, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) oinarrizko erreferentzia dira plana garatzeko.

Oinarrizko erreferentzia horiekin batera, hauek dira plana idazteko kontuan hartu diren plan, arau-garapen eta jarduerak:

- Gipuzkoako Agenda 2020>2030, Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuarena
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2030 Kudeaketa Plan Estrategikoa
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuaren barnean, antolaketako zerbitzu berriak eta aldaketak
- Enplegagarritasunerako eta aktibazio inklusiborako estrategia Elkar-EKIN Lanean
- Gizarte Zerbitzuak Pertsonalizatzeko Gida
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako III. Foru Plana
- Diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloko euskal araudiaren erreforma
- Aukera Gizarteratzeko Euskal Agentzia sortzea eta euskal espetxe eredua garatzea
- 1/2022 LEGEA, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa
- Gizarte Zerbitzuen plangintzaren arloko beste aurrerapen batzuk autonomia erkidegoan

00

[02.]
Planaren irizpide orokorrak eta printzipio gidariak

Gizarte inklusioaren arloko politika publikoen plangintzak zailtasun garrantzitsu samarrei egin behar die aurre, bai gizarte inklusioaren eta gizarte bazterketaren kontzeptuak oso zabalak direlako eta ez beraz riazkoak, bai horien garapenean inplikatuta dauden politikak eta eskumen eremuak askotarikoak direlako. Zailtasun horiek kontuan hartuta, eta aurreko planaren ebaluaziotik eratorritako ikaskuntzetatik abiatuta, bigarren plana irizpide orokor edo printzipio gidari batzuen arabera egituratzen da, eta horien bidez mugatu nahi dira planaren irismena eta jardun eremuak.

- → Plan bat, ardatza duena, batez ere, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako lehen eta bigarren mailako arretako Gizarte Zerbitzuen sarean.
- → Zeharkako plan bat, erakunde artekoa eta integrala.
- → Plan orientatzaile bat, eta, aldi berean, konpromiso eta jarduera zehatzetan ardaztua.
- → Aliantzak sustatzeko plan bat, aldi berean loteslea, akordio zabal batean eta elkarlaneko gobernantza batean oinarritua.
- → Plan kontinuista bat eta, aldi berean, berrikuntzara bideratua.
- → Jarraipen eta ebaluazio sistema bat duen plana, Gipuzkoako Foru Aldundia buru duena eta maila anitzeko gobernantza eredu batean oinarritua.
- → Plan malgua eta berrikusgarria.

[03.]

Arreta eredua: pertsonalizazioa, estratifikazioa eta lurralde-ikuspegia.

Planean oinarritzen den arreta ereduaren elementu nagusiak hiru dira: zerbitzuen pertsonalizazioa, profilen eta premien estratifikazioa, eta lurralde ikuspegia, zaintzako tokiko ekosistemak bultzatuz, baita bazterketaren eremuan ere.

[03.1.]

Zerbitzuak pertsonalizatzea eta pertsonarengan oinarritutako arreta.

Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei emandako zerbitzuak pertsonalizatzeko helburuan aurrera egitea Gipuzkoako Gizarte Inklusioko II. Elkar-EKIN Planaren oinarrizko ardatzetako bat da, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak Pertsonalizatzeko Gidan eta Gipuzkoa 2020>2030 Agendan ezarritakoaren ildotik. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak Pertsonalizatzeko Gidaren arabera, honako printzipio hauetan oinarritzen da pertsonalizazioa:

- → Duintasuna.
- → Eskubideak.
- → Autodeterminazioa, hautaketa eta kontrola.
- → Osotasuna.
- → Genero ikuspegia eta intersekzionalitatea.
- → Parte-hartzea.
- → Baldintzagabetasuna.
- → Bizi kalitatea (kalitatezko bizitza).
- → Gizarte-inklusioa.
- → Arreta komunitatean (eta komunitatearen alde), ingurune arruntetan.
- → Orientaziorako eta informaziorako eskubidea.

[03.2.]

Profilak eta beharrak geruzatzea konplexutasunaren arabera.

Gizarte bazterketaren kontzeptuaren barruan hainbat egoera, profil eta behar daude, eta, gainera, eskumenak sakabanatuta daude dimentsio anitzekoak direlako. Hori dela eta, mekanismoak antolatu behar dira argi eta garbi zehazteko zer eragilek –publikok edo pribatuk– hartu behar duten beren gain profil edo premia bakoitzari erantzuteko erantzukizuna. Pentsa daiteke Euskadin Gizarte Zerbitzuen arloan indarrean dagoen araudiak –batez ere Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko 85/2015 Dekretuak– gai horiek argitzen laguntzen duela, baina beste mekanismo batzuk antolatu behar dira funtzioen eta erantzukizunen mugaketan aurrera egiteko (bereziki lehen mailako eta bigarren mailako arreta mailen artean, Gizarte Zerbitzuen barruan, baina baita babes sistema desberdinen artean ere) eta, gainera, behar bezala betetzen ez diren sistemei erantzun bat emateko, egoeren, profilen eta premien arabera.

Esparru horretan, plan honek estratifikazio edo segmentazio eredu bat hartzen du –Kaiserren piramidea–. Eredu horrek aukera ematen du erakunde maila desberdinei erantzukizun zehatzak esleitzeko, profil eta premia desberdinetara egokitutako baliabideekin erantzuteko eta, azkenik, premia guztiei erantzuteko, eta ez soilik gizarte zerbitzuetan sartzeko baldintza formalak betetzen dituztenei. Estratifikazioaren ideia, beraz, funtsezko elementu gisa planteatzen da plan honen esparruan, baliabideen sarea berrantolatzeko.

[03.3.]

Lurraldearen ikuspegia eta tokiko eta eskualdeko arreta sareak bultzatzea

Zerbitzuen konfigurazioan lurralde ikuspegitik aurrera egin beharrak, besteak beste, zaintzako tokiko ekosistemen sorreran aurrera egin beharrari erantzuten dio, Gizarte Politiketako Departamentuko 2020>2030 Agendan ezartzen den bezala. Ekosistema horiek, dokumentu horretan adierazitakoaren arabera, hainbat mailatan (udal zein foru mailetan) mantendutako arretaren, zaintzen eta laguntzen ikuspegi eta kudeaketa sozial eta soziosanitarioa errazten dute.

Aurrez aipatutako estratifikazio eredua kontuan hartuta, lurralde ikuspegia bultzatzeak honako hau dakar:

- aurrera egitea bigarren mailako arretako foru zerbitzuen eta lehen mailako arretako udal zerbitzuen arteko baterako lanean, bai kasu mailan, bai baliabide eta ekimen bateratuak sustatzeari dagokionez.
- Aurrera egitea lehen mailako arretako zerbitzuak eskualdeka banatzen eta/edo mankomunizatzen, Gipuzkoako eskualde guztietan Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako lehen mailako arretako zerbitzuak eskaini ahal izateko, baita Kaiser piramidearen oinarrian dauden biztanleria profiletara bideratutako programak, baliabideak eta prebentzio jarduerak ere.
- Gizarte zerbitzuen eta gainerako babes sistemen (enplegua, diru-sarreren bermea, osasuna, etxebizitza, etab.) arteko komunikazio eta koordinazio bide egonkorren sorreran aurrera egitea eskualde mailan.
- Elkar-EKIN Lanean estrategiaren hedapenean aurrera egitea, batez ere eskualdean lana aktibatzeko baliabideen garapenarekin zerikusia duen guztian.

[04.]
Lehentasunezko erronkak

- Gizarte zerbitzuen eta gizarte babeseko beste sistema batzuen arteko koordinazioa hobetzea, bai mikro mailan (pertsonak), bai makro mailan (erakundeak), herritarrei etengabeko arreta integrala eskainiz. Erronka horri erantzuteko, honako hauek behar dira: a) administrazioaren maila desberdinen arteko zerbitzu prestazio koordinatuan aurrera egitea, gizarteratzeko tokiko ekosistemak garatuz eta profilak eta beharrak estratifikatuz; eta b) inplikatutako administrazio guztiek gizarte bazterketaren prebentzioan eta lanketan dituzten erantzukizunei aurre egiten dietela bermatzea.

- Gizarte Zerbitzuen Zorroaren baliabideak eta zerbitzuak Gipuzkoako eskualde guztietan behar bezala heda daitezen bultzatzea, eta zerbitzu eta prestazio horiek bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen benetako beharretara egokitzea, arretaren kalitatea bermatuz.

- Gizarte osoarentzako —enpleguaren, etxebizitzaren, osasunaren, diru-sarreren bermearen, hezkuntzaren edo kulturaren eremuan— gizarte bazterketako arriskuak murrizteko aukera ematen duten prebentzio zerbitzuen garapena bultzatzea, eta oinarrizko arreta sare bat dagoela bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuetara eta/edo gizarte babeseko gainerako sistemetara iristen ez diren pertsonei behar adinako erantzuna emango diena.

- Gizarteratzeko gizarte zerbitzuen eremuko pertsonalizazioaren agenda garatzea, agenda egituratzen duten ikuspegiak, ereduak, metodologiak eta printzipioak ezarriz: bizi kalitatea, autodeterminazioa, laguntza eredua, baldintzarik eza eta kalteen murrizketa, etab.

- Sektorearen egituraketa bultzatzea, ezagutza kudeatuz (prestakuntza, ebaluazioa, ikerketa eta berrikuntza), araudia arautuz eta sistemaren elkarlaneko gobernantza bultzatuz, eta, gainera, gizarteratzearen eremuan esku hartzen duen hirugarren sektorearen artikulazioa indartuz.

- Herritarrek gizarte inklusioan duten sentsibilizazioa eta parte-hartzea sustatzea, bai eta erabiltzaileen partaidetza soziala ere, eta komunitatea aktibatzeko sareak eta proiektuak bultzatzea, bazterketa prozesuak prebenitzeko eta egoera horiei erantzun komunitarioa eta gertukoa emateko.

- Gizarteratzeko zerbitzu, zentro eta programen diseinuan eta plangintzan genero ikuspegia modu estrukturalean eta zeharkakoan txertatzea, aldi berean etorkinen edo gutxiengo etnikoetako kide diren pertsonen eskubideak eta premiak kontuan hartzen direla bermatuz (kulturarteko ikuspegia).

[05.]
Lehentasunezko arreta beharrak eta egoerak

KONPLEXUTASUN HANDIKO BAZTERKERIA EGOERAK	• Etxegabetasun ibilbide luzeak, adikzioak eta/edo osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak. • Etxegabetasun egoeran dauden, osasun mentaleko arazoak dituzten eta/edo abusu eta tratu txarren aurrekariak dituzten emakumeak • Laguntza zerbitzuen eta baliabideen arauetara egokitzeko zailtasun larriak dituzten pertsonak
ARRISKU EGOERAN DAUDEN HAURRAK ETA FAMILIA	• Guraso bakarreko familien kargura dauden emakumeak, kanpoko laguntzarik gabe • Hazteko zailtasunak dituzten eta/edo gizarte eta hezkuntza desabantailako egoeran dauden familiak
BAZTERKETA EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN MIGRATZAILEAK, ERREFUXIATUAK EDO GUTXIENGO ETNIKOETAKO KIDEAK.	• Egoera irregularrean dauden edo erroldarik ez duten migratzaileak edo errefuxiatuak • Beste herrialde batzuetara bidean dauden migratzaileak edo babes eskatzaileak • Etxebizitzaren, enpleguaren, diru-sarreren edo gizarte harremanen eremuan sartzeko zailtasunak dituzten atzerritar jatorriko pertsonak • Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden ijitoak
BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN GAZTEAK	• Babesgabezia sistema erreferente edo lotura sendorik gabe uzten duten gazteak • Babesik eta erreferenterik gabeko gazte etorkinak (bereziki egoera irregularrean daudenak) • Helduarora igarotzeko zailtasunak dituzten nerabeak • Hezkuntza sistema formalean zailtasunak dituzten gazteak • Bazterketa egoeran dauden gazteak, adingabeen babesteko sistematik atera direnak (kalea, kontsumoak, laguntzarik eza...)
BEHAR SOZIO-LABORALAK, SOZIO-SANITARIOAK EDO SOZIO-ERRESIDENTZIALAK DITUZTEN PERTSONAK	• Hainbat eremutan zailtasun edo gabezia larriak dituzten pertsonak, sistema batek baino gehiagok artatu ditzaketenak (mendekotasuna eta bazterketa egoera duten pertsonak, adibidez). • Bizitegi egoera arin edo moderatuan eta/edo ezkutuko etxegabetasun egoeretan dauden pertsonak; • Kualifikaziorik gabeko pertsonak, lan ezegonkortasun larriko egoeran daudenak edo luzaroan langabezian daudenak; • Gaixotasun mentala eta/edo gaixotasun kronikoak dituzten eta familiaren laguntzarik ez duten pertsonak; • Adikzio arazoak dituzten pertsonak • Bakartuta eta bakarrik dauden pertsonak.

[06.]
Ekintza ardatzak eta helburu estrategikoak

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK
1. ARDATZA. PREBENTZIO ETA AKTIBAZIO KOMUNITARIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA	1. Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta Gizarte Zerbitzuen sistema publikoan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonei estaldura ematera bideratutako jarduerak garatzea. 2. Tokiko eta eskualdeko koordinazio egiturak eta mekanismoak bultzatzea, bazterketa prebenitzeko eta hari aurre egiteko tokiko ekosistemen garapena bultzatuz. 3. Tokiko eta hurbileko ekimen komunitarioak bultzatzea, gizarte bazterketako egoerak prebenitzen eta horiei aurre egiten laguntzeko. 4. Lurraldeko pobrezia, desberdintasun eta bazterketa egoeren inguruan herritar guztiak informatzea eta sentsibilizatzea ahalbidetuko duten ekintzak bultzatzea. 5. Erabiltzaileek zerbitzuen kudeaketan parte har dezaten sustatzea eta herritar guztiek gizarte politiken diseinuan parte har dezaten laguntzea
2. ARDATZA. ENPLEGU SISTEMETARAKO SARBIDEA, DIRU-SARREREN BERMEA, JUSTIZIA, OSASUNA, ETXEBIZITZA ETA PRESTAKUNTZA	6. Elkar-EKIN Lanean estrategiaren esparruan, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak laneratzeko jarduera espezifikoak garatzea. 7. Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden eta diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonei gizarte laguntza emateko prozesuak hobetzea. 8. Lurraldeko prestazioen sistema osoan hobekuntzak sustatzea, pobrezia eta desberdintasun egoerak murrizteko. 9. Baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonek etxebizitza eskura dezaten sustatzea, eta bizilekuari dagokionez dituzten premiei erantzutea. 10. Baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei osasun zerbitzuetarako sarbidea erraztea 11. Lurraldean zigorra betetzen duten pertsonei eskaintzen zaizkien gizarteratzeko eta laneratzeko zerbitzuak hobetzea 12. Baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei kultura, aisia edo astialdi jardueretarako sarbidea erraztea
3. ARDATZA. INKLUSIORAKO GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA SENDOTZEA	13. Lurraldeko eskualde guztietan garatzea Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako baliabideak eta ekipamenduak. 14. Sareko zerbitzuen funtzionamendua pertsonalizazioaren ikuspegira egokitzea eta arreta eredu komun bat finkatzen aurrera egitea. 15. Lehen eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen baterako lanerako eta/edo integraziorako beharrezkoak diren akordioak sortzea 16. Konplexutasun handiko bazterketa egoerak dituzten pertsonei ematen zaien arreta hobetzea
4. ARDATZA. ARTIKULAZIOA ETA GOBERNANTZA	17. Sistemaren koordinazio eta gobernantza mekanismoak bultzatzea. 18. Inklusioaren eremuan lan egiten duten erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen erakunde hornitzaileen nahikotasun teknikoa eta ekonomikoa bermatzea 19. Ebaluazio, prestakuntza, berrikuntza, behaketa eta ikerketa tresnak sustatzea. 20. Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden emakumeen premiei aurre egitea ahalbidetuko duten neurri eta jarduera espezifikoak ezartzea, eta zerbitzuak diseinatzean eta ematean genero ikuspegia sustatzea



[07.]
Orientabideak, gomendioak eta jarraibideak

Gomendioak edo jarraibideak orientabide generikoak dira, eta planarekin lotutako eragileak gidatu nahi dituzte, ezarritako esparru kontzeptual eta teknikoarekin bat datozen neurriak edo jarduerak identifikatzeko, ondoren Gipuzkoan gara daitezen. Plana egituratzen duten ardatzen arabera antolatzen dira, eta aurrez adierazitako helburuak garatzen dituzte.

1. ardatza. Prebentzioa, aktibazio komunitarioa, sentsibilizazioa eta parte-hartze soziala

1. Neurri espezifikoak hartzea bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuak eta prestazioak eskuratzearekin lotutako administrazio izapideak sinplifikatzeko, arreta berezia jarriz lurraldean bizi diren eta Biztanleen Erroldan inskribatuta ez dauden pertsonen erroldatzeari.

2. Hirugarren sektoreko erakundeek administrazio publikoekin lankidetzan emandako zerbitzuak indartzea, iragaitzazko migratzaileei eta asilo eskatzaileei berehalako erantzuna emateko.

3. Egoitzetako eta/edo barnetegietako irteera prozesuak behar bezala planifikatzeko behar diren neurriak hartzea, desinstituzionalizazio prozesu arrakastatsuak bermatzeko eta bizitegi bazterketako egoerak prebenitzeko.

4. Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako gizarte zerbitzuen eremuan parte-hartzea eta gizarte inklusioa sustatzeko zerbitzuaren garapenean aurrera egitea, batez ere eskualde mailan.

5. Aurrera egitea enplegagarritasun arazo handienak dituzten pertsonak aktibatzera eta laneratzera bideratutako jardueren garapenean, Elkar-EKIN Lanean estrategiaren esparruan.

6. Haurren pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko jarduera espezifikoak garatzea, maila autonomikoan garatzen diren haurrak bermatzeko programen esparruan.

7. Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen oinarrizko premiak asetzera bideratutako ekimenak indartzea eta berrantolatzea.

8. Etorkinei, errefuxiatuei edo asilo eskatzaileei eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden beste pertsona batzuei harrera egitean laguntza, mentoria eta babes komunitarioko programa espezifikoak eta herritarrak inplikatzeko beste formula batzuk garatzea.

9. Kulturaren eta kirolaren bidez gizarteratzeko programak garatzea, bereziki arrisku-egoeran edo gizarteratze bidean dauden pertsonentzat.

10. Komunitateetan eta auzoetan kulturartekotasuna sustatzeko programak garatzea, batez ere auzo eta kultura elkarteen bitartez.

11. Bitartekotza komunitarioko programak bultzatzea eta aniztasun eta bizikidetza planak egitea, auzoetako edo komunitateko gatazkak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko.

12. Erabiltzaileek gizarte inklusioko politiken diseinuan eta zentroen eta zerbitzuen kudeaketan parte har dezaten sustatzeko jarduerak garatzea.

13. Hedabide konbentzionaletan berariazko sentsibilizazio kanpainak egitea, gizarte bazterketako edo arriskuko egoerei dagokienez.

14. Diskurtso eta mezu inklusiboak zabaltzeko ekimenak indartzea, inklusiorako politiken legitimitate soziala errazteko eta aniztasunean bizikidetza eragozten duten zurrumurru eta estereotipo negatiboak zabaltzea saihesteko.

15. Tratu berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko kontzientziazio kanpainak egitea.

16. Gorroto delituak eta gizarte bazterketa jasateko arrisku handiena duten kolektiboen (etxerik gabeko pertsonak, gutxiengo etnikoak, etorkinak, etab.) eskubideen urraketa prebenitzeko kanpainak bultzatzea.

2. ardatza. Enplegu sistemetarako sarbidea, diru-sarreren bermea, justizia, osasuna, etxebizitza eta prestakuntza

17. Diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua indartzea eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) babes ahalmena handitzea, bai diru-sarrerarik gabeko pertsonentzat, bai soldata edo pentsio txikiak dituztenentzat.

18. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta kalteberatasun egoeran dauden herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko duten gaitasuna indartzea.

19. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sisteman jasotako prestazio ekonomikoen eta PFEZaren esparruan aplikatutako zerga tresnen koordinazioan/integrazioan aurrera egitea.

20. Emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala prebenitzeko eta murrizteko ekintza espezifikoak egitea.

21. Elkar-EKIN Lanean estrategiaren esparruan, enplegu babestuko programen eta laneratzeko enpresen gaitasuna sustatzea, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei kalitatezko enpleguak eskura ditzaten sustatzeko programak eskaintzeko.

22. Elkar-EKIN Lanean estrategiaren esparruan, aliantzak sustatzea bai laneratzeko enpresen eta enpresa arrunten artean, bai enplegu zentro berezien eta enpresa arrunten artean, enpresa sarearen gizarte erantzukizuna bultzatuz enplegagarritasunari laguntzeko premia handienak dituzten pertsonen laneratzean.

23. Kontratazio publikoko prozesuetan klausula sozialak sartzea 2016ko apirilaren 7ko Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko 3/2016 Legean eta kontratazio publikoko ingurumen irizpideei buruzko euskal araudian xedatutakoaren arabera.

24. Laneratzeko laguntza osagarriak ematera bideratutako jarduerak garatzea, arreta berezia jarriz lana eta familia bateragarri egiteari eta haurrak zaintzeari, garraioari eta lanpostu batean sartzeko beharrezkoak diren ordainketa ekonomikoei.

25. 0-2 urteko eskolatze goiztiarraren kalitatean eta irisgarritasunean aurrera egitea, indar berezia jarriz gizarte-ingurune behartsuetatik datozen haurrengan.

26. Osabidezko hezkuntzako, oinarrizko lanbide heziketako eta gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeko programak indartzea, bereziki gizarte eta hezkuntza arloko desabantaila handienak dituzten biztanleei zuzenduta.

27. Alokairuko sustapen publikoko etxebizitzen parkea handitzea, etxebizitza berriak eraikiz eta hutsik dauden etxebizitzak mobilizatuz, eta gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonek etxebizitza parke hori lehentasunez eskura dezaten sustatzea.

28. Etxebizitza sistemaren eta gizarte zerbitzuen sistemaren arteko baterako ekimenak sustatzea, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei etxebizitza lortzeko aukera errazteko, baldin eta gizarte zerbitzuek esku-hartze prozesuak gauzatzen badituzte pertsona horiekin.

29. Etxegabetzeak prebenitzeko jarduerak indartzea.

30. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta udalen artean hitzarmenak sina daitezen bultzatzea, premian dauden gizarte sektoreentzako zuzkidura-bizitokien udalaz gaindiko sarea pixkanaka osatzeko.

31. Osasun arreta egokia sustatzeko jarduera espezifikoak garatzea, arreta berezia jarriz adinekoengan, desgaitasuna dutenengan, etorkinengan, gaixotasun mentalak dituztenengan edo askatasunik ez dutenengan.

32. Gizarte bazterkeriako edo marjinalitateko arrisku handia duten eremuetan esku-hartze komunitarioak diseinatzea, nahasmendu mentalen eta mendekotasunen baldintzatzaileen gainean jarduteko.

33. Gizarte kalteberatasun handieneko kolektiboei osasun sisteman sartzen lagunduko dieten esku-hartze espezifikoak ezartzea, Hirugarren Sektoreko erakundeek kolektibo jakin batzuetara iristeko bitarteko eragile gisa duten zeregina sustatuz.

34. Osasunaren sustapena eta Adikzioen prebentzioa sustatzea arrisku edo zaurgarritasun bereziko egoeran dauden pertsona edo kolektiboetan.

35. Gipuzkoako Lurralde Historikoan zigorra betetzen ari diren pertsonei ematen zaien arreta hobetzea, eta gizarteratzeko eta laneratzeko programa berriak garatzea.

3. ardatza. Gizarteratzeko gizarte zerbitzuen sistema sendotzea eta zerbitzuen pertsonalizazioa bultzatzea

36. Maila mikroan (pertsonen arreta), sistema barruko eta sistema arteko kudeaketa partekatuan oinarritutako programa berritzaileak garatzea, eta erreferentzialtasun mekanismoak bultzatzea.

37. Aurrera egitea gizarte inklusiorako gizarte zerbitzuetan artatzen diren pertsonen arretarako banakako planen balorazioan, zerbitzuen preskripzioan eta elaborazioan.

38. Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearekin, esku-hartze psikosozialarekin eta akonpainamendu sozialarekin lotutako prestazioak eta zerbitzuak sustatzea, bereziki ingurune komunitarioetan eta ingurune komunitarioetarako garatutakoak.

39. Gizarteratzeko egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako zerbitzu guztien hedapena sustatzea, lehen mailako zein bigarren mailako arretan, lurraldeko oinarrizko eremuetan, areetan, eskualdeetan eta gizarte zerbitzuen sektore guztietan.

40. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ekintza gaitasuna areagotzea gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko eta egoera horiei aurre egiteko.

41. Gizarte inklusiorako laguntza publikoak indartzea eta birbideratzea.

42. Lehen eta bigarren mailako arretako zentroen eta zerbitzuen baterako ko-kudeaketa bultzatzea, Foru Aldundia eta eskualde bakoitzeko udalak lotuz sarea osatzeko behar diren ekipamenduen sustapenean eta kudeaketan.

43. Bermatzea erabiltzaileek parte-hartzen dutela Lurraldeko pertsonalizazioaren garapenaren esparruan laguntzak, zerbitzuak eta prestazioak hautatzean.

44. Pertsona bakoitzak behar dituen laguntzak eskuratzeko prestazio ekonomikoen aukera aztertzea, Gipuzkoan pertsonalizazioaren garapenean aurrera egiteko.

45. Zentro eta zerbitzuen funtzionamendua egokitzeko bidean aurrera egitea, Gipuzkoan pertsonalizazioaren printzipioetan oinarritutako arreta eredu komun baterantz.

46. Bereziki konplexutasun handiena duten pertsonei zuzendutako programak eta neurriak bultzatzea, arreta berezia jarriz gizarte bazterketako egoeran dauden emakumeengan eta patologia mental larriak dituzten pertsonengan.

4. ardatza. Artikulazioa, berrikuntza eta gobernantza

47. Eskualde eta udalerrietan jarduteko diagnostiko eta plan espezifikoak garatzea, sareko lana sustatzeko eta tokiko arreta ekosistemak eraikitzeko.

48. Auzo, udalerri edo eskualde mailan pobreziaren eta gizarteratzearen eremuko koordinaziorako lurralde mahaien sorrera bultzatzea, enpleguko, osasuneko, hezkuntzako eta gizarte zerbitzuetako zerbitzu publikoen jardunak koordinatu ahal izateko, baita Hirugarren Sektorearen parte-hartzea ere.

49. Zerbitzuak emateko elkarteak sor daitezen bultzatzea, hurbiltasun geografikoaren eta baliabideen erabileraren efizientziaren printzipioarekin bat etorriz.

50. Gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen eta boluntarioen oinarrizko prestakuntza espezializatura bideratutako jarduerak indartzea

51. Esku hartzeko gidak, jardunbide egokien eskuliburuak, koordinazio protokoloak eta beste tresna batzuk prestatzea, gizarteratzearen arloan lan egiten duten eragileen esku-hartzearen kalitatea bermatzeko, bai eta esku hartzeko eredu komun bat hedatzeko ere.

52. Arreta zerbitzuen prozesuaren, emaitzen eta inpaktuaren adierazleak ezartzea, bai zentro edo zerbitzuen mailan, bai sistema osoan, eta arreta sarearen ikuskapen eta ebaluazio zereginak indartzea.

53. Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako gizarteratzeko zentro eta zerbitzuen eredu arautzaile komunetan aurrera egitea, erkidego, foru eta udal mailan.

54. Gizarteratzearen arloko beharrak eta politika publikoek premia horiek asetzean duten eragina ikertzearekin lotutako jarduerak bultzatzea, ikerketa eta azterketa jarduerak indartuz.

55. Gizarteratzearen arloan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeen barnean artikulazioa eta koordinazioa indartzea.

56. Administrazio publiko guztiek itun sozialaren araubidea eta hirugarren sektorearekiko lankidetza formalizatzeko lankidetza hitzarmenak bultzatzea.

57. Erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuak ematen dituzten erakundeetan enpleguaren kalitatea sustatzea.

[08.]
Planaren gobernantza

Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko II Plana maila anitzeko tresna gisa planteatzen da, eta erakunde arteko izaera du, Gipuzkoako Foru Aldundia buru duten maila desberdinetako erakunde eta organismoak planarekin lotzen diren heinean.

Lehenengo planaren ildoan, bigarren plan hau administrazioen arteko lankidetzaren ideian oinarritzen da, eta Gipuzkoan gizarteratzeko politiken esparruan lan egiten duten eragile guztien baterako lan koordinatua azpimarratzen du. Ikuspuntu horretatik, eta Gipuzkoa 2020>2030 Agendaren ildotik, plan hau behar bezala kudeatzeko ezinbestekoa da elkarlaneko gobernantza egiturak sortzea, planaren ezarpenean eta ebaluazioan inplikatutako erakunde eta entitate guztiak sartu ahal izateko.[1]

Plana garatzeko laguntza egiturak:

- Idazkaritza Tekniko bat, planaren hedapenaren ondoriozko jardueraren zati bat kudeatzeaz arduratuko dena, bai eta jardueren koordinazio orokorraz eta planaren jarraipenaz ere. Idazkaritza Tekniko hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentutik kanpoko erakunde bati agindu ahal izango zaio.

- Planaren Jarraipen Batzorde bat, planari lotutako erakundeetako ordezkari teknikoek osatua. Batzorde hori planaren jardueren jarraipena egiteko eta planaren esparruan garatzen ari diren jarduerei buruzko eztabaidarako esparru gisa planteatzen da, baita hobetzeko gomendioak emateko eta planaren emaitzak eta eraginak hedatzeko eta jakinarazteko prozesuei euskarria emateko ere.

- Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

  - Jarduketa planak egiten eta baliozkotzen laguntzea.
  - Planari lotutako erakundeek egiten dituzten jarraipen txostenak gainbegiratzea, baita egiten diren ebaluazio txostenak ere.
  - Planaren edukian doikuntzak eta hobekuntzak proposatzea, eta, beharrezkoa bada, jarduera edo helburu berriak gomendatzea.

- Aholkularitza Talde Teknikoa**.** Gainera, planaren gobernantzarako aholkularitza talde tekniko bat ezarriko da, inklusiorako gizarte politiken arloan kudeaketan eta ikerketan esperientzia eta gaitasun aitortua duten pertsonez osatua. Talde horren eginkizunak izango dira Jarraipen Batzordeari eta Aldundi osoari aholkularitza ematea arazo berrien larritasunari buruz eta lan ildo edo jarduera berriak hartzeari buruz, bai eta Planaren jarraipen eta ebaluazio prozesuetan parte hartzea ere.

1 Elkarlaneko gobernantzaren eta maila anitzeko gobernantzaren alde egiteak ere Gipuzkoan arlo horretan egiten ari den lanari erantzuten dio. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren 2020>2030 Agendak, gobernantzako berrikuntza publikoaren esparruan, gizarte politikak diseinatzeko, ebaluatzeko, gomendatzeko eta bultzatzeko partaidetza eta deliberazio espazioak sustatzearen egokitasuna aipatzen du.

[09.]
Planaren ebaluazioa eta jarraipena

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak honako hauek dira:

- Lurraldeko gizarte bazterketako egoerei buruzko adierazleak dituen aginte taula bat diseinatzea eta aldian behin eguneratzea, bai eta barne kudeaketako prozesuak ere Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuaren barruan. Aginte taula hori aldian-aldian eguneratuko da, eta honako alderdi hauei buruzko informazioa jasoko du:

  - Pobreziarekin, desberdintasunarekin eta gizarte bazterketarekin lotutako egoerak zabaltzea lurraldean.
  - Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako Gizarte Zerbitzuen Zorroaren baliabideak hedatzea.
  - Gizarteratzeko gizarte zerbitzuetara bideratutako udal eta foru inbertsioari buruzko informazioa.
  - Gipuzkoako Gizarteratzeko Sarearen zerbitzuetan artatutako pertsonen oinarrizko ezaugarriak.

- Planari lotutako erakunde bakoitzak egindako jarraipen txostenak. Jarduketa plan bakoitza amaitzean, lotutako erakundeek txosten bat egin beharko dute, honako hauek zehaztuta: orientabideak betetzeko garatu dituzten jarduerak, hartutako konpromisoen betetze maila eta erakunde bakoitzaren ardurapeko proiektu traktoreen garapen maila.

- Informazio hori abiapuntutzat hartuta, Gipuzkoa Elkar-EKIN Gizarte Inklusio Planaren esparruan egiten diren jarduera plan guztien ebaluazio txostena egingo da. Txosten horiek prozesuen ebaluazioan oinarrituko dira, hau da, egindako jarduerei, emandako zerbitzuei eta sarearen funtzionamenduan izandako aldaketei buruzko informazioa bilduko dute.

- Proiektu traktoreen inpaktuaren ebaluazioak, amaitu ondoren, helburuak hobetzeko eraginkorrak izan diren aztertzeko, inklusioari eta erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeari dagokienez.

- Planaren ebaluazio orokorra, indarraldia amaitutakoan. Ebaluazio horrek barnean hartuko ditu prozesuaren ebaluazioaren emaitzak (planaren esparruan zer jarduera egin diren) eta inpaktu ebaluazioaren emaitzak (nola eragin dioten jarduera horiek arreta sarearen hobekuntzari). Halaber, ebaluatu diren trakzio proiektuen inpaktu ebaluazioen emaitzak jasoko dituzte.

Departamentuak erabakiko du nori dagokion planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak abian jartzeko behar diren jarduerak egiteko ardura.

[10.]

Gipuzkoako konpromisoa gizarte inklusioaren alde

Gizarte inklusioaren aldeko gutxienez bost konpromiso bilatzen dituen aliantza bat da:

- Pertsonen ongizatea bermatuko duen, desberdintasunak murriztuko dituen eta bizi kalitatea hobetuko duen konpromisoa.
- Zeharkako, erakunde arteko eta osoko lanarekiko konpromisoa, inplikatutako politika eta eskumen eremu anitzen emaitzarik onena lortuko duena.
- Gizarte inklusioari buruzko ikuspegi partekatu berri baten inspirazio iturri izango den konpromisoa, aldi berean errealitatera bideratua eta, horregatik, jarduera zehatz eta ebaluagarrietan ardaztua.
- Gure jardunbide egokiei eusteko konpromisoa, baina berrikuntzara irekita nahitaez, gehiago ez ezik, hobeto ere egiteko.
- Emakumeak eta gizonak indarguneak eta lehentasunak dituzten gizabanako gisa, eta ez soilik premiak eta gabeziak dituzten gizabanako gisa, arretaren erdigunean jarriko dituen arreta eredu batekiko konpromisoa: pertsonak lehenik.

Aliantzan parte hartzen duten erakundeek beren gain hartzen dituzte konpromiso horiei zentzua emango dieten jarduera zehatzak; era berean, jarraipen eta ebaluazio lanetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.